

AZKEN MALKOAK OTE?

Ixiar Zubiaurre

Beasain, 16 urte

Leihoko gortinak alde batera bildu zituen eskuaz, kristalaren gardentasuna agerian utziz. Leihotik zehar ikus zitezkeen zuhaitzak jada zimel-tzen hasiak zeuden, eta oraindik ere adar indarga-betuei tinko heltzen zieten hostoak harantz eta honantz zebiltzan hego-haizeak eraginda. Negu zakarrerako prestatzen hasiak zeuden jada, kolore gorrixkako hasperenez, neguari ongi etorria egiteko asmoz.

Mendi hotzetik kaleko babesera jaitsitako beleak zuhaitzez zuhaitz zebiltzan, jendearen saminaz oturuntza ederra egiteko asmoz, putreak balira bezala. Haien begietan maltzurkeria ageri zen, denen zelatan eta erasotzeko momentu egoki baten zain gogaikarria egiten zen egotaldian.

Etxe ondoko parkera zuzendu zuen begirada; erdian presatutako urez beteriko putzua zegoen, garai batean lumaia zuridun ahateen bizilekua izan zena. Urmaelaren ingurua altzifreen tonu bereko nenuferek erabat estaltzen zuten gaur egun. Parke bakartia zen hura, herritik aparte ez egon arren, burumakur noraezean zebiltzanek soilik igarotzen zuten arima erratuen konpainian. Garai hartan inoiz baino tristeagoa eta bakartiagoa zirudien, bizitasuna berriz ere berreskuratzeko itxaropena galdua balu bezala.

Zeruan trumoi hodeiak ageri ziren. Kanpoan ekaitza izango zen, baita barnean ere. Zuhaitzen moduan, hark ere negurako prestatzen hasi beharko zuen, hilabete asko igaro arte ez baitzuen eguzkiaren berotasuna bere aurpegian sentitzeko aukerarik izango eta zuri-beltzezko paisaia eta ikatzezko txorien artean ibiltzera ohitu beharko baitzuen.

Bere pentsamenduetatik errealitatera itzularazi zuten pauso hotsak entzun zituen atarian. Marmarrean hasiko ziren urratsak, kupidarik gabe biluzik utzi arte. Orduan inguruko horma guztiak begirada errukiorrez bete ziren, oinkada haien gurgurak soilik entzuten zirelarik, doinu isil eta tristeak balira bezala. Beste pauso batzuen gaitz esana ere entzutea ahalbidetzen zuten horma zahar haiek, hauek lumarik gabe utzi arte hitz egiten zutelarik. Begiradak eta begiradak, zein baino zein errukierragoak, baina denak ere tristuraz nekaturik begiak itxi eta desagertu egiten ziren, zuhaitzetik hosto ihar bat, hego zakarraren aurka sostengatu beharrean, haizearen beso leunetan eramaten uzten den moduan, enbor meharra indarrik eta babesik gabe utziz.

Marmar haietatik ihesi abiatu zen sukalderantz, horma zurian iltzaturiko apaletik aspaldidanik erretiratua behar zuen irrati beltza esku dardartiez, mahaira jaitsi zuelarik. Mugimendu presatiez piztu ondoren, irratiko sintonia bilatu eta ahots haiek itotzeraino jaso zuen iluntzeko berriak ematen ari zen mintzalariaren ahotsaren bolumena.

Harraskan pilatutako ontziei so egin zien eta, hasperen luze baten ondoren, erlojuari begirada

bat bota eta leiho ondoko aulkian eseri zen, lanean hasi aurretik egin osoan atsedetik hartu gabeko hankei lasaitzeko unetxo bat emateko asmoz.

Leioa erdi irekita zegoen bere aurrean eta kristalean islatzen zen bere burua. Ez zuen ez oso itxura ona, bizitzak emandako tratuak guztiz eraldatu baitzion bere garai bateko gorpuzkera lirain hura. Hatz zaharkituak eraman zituen bere aurpegi-rantz, leihoan islatzen zen emakume hura zela egiaztatzeko asmoz. Goitik behera arakatu zion aurpegia, baina imana balitz bezala, sudur zapalean gelditu ziren begi goibel haiek. Bat-batean oroitzapen mingarriak iritsi zitzaizkion. Gogoan zuen alkohol eta tabakoaren gehiegikeriak sorturiko kirats higuigarri hura, momentu hartan usainduko balu bezala oroitzen zuen; aho handi hartatik etengabe, milaka irain eta garrasirekin nahastuz, etxe guztian zabaltzen zen usaina.

Burutik oritzapen haiek kendu nahian aurpegi-ko beste atal baterantz so egin zuen, baina gorputz osoarekin zeuden loturik memoria haiek, jipoi garrasi eta orroe haiekin soldatuak baleude bezala. Ezin aurkitu txokorik gogoeta haietan murgildu barik. Belarri, masail, sabel, aho... denak sufrimenduari iltzatuak.

Bilaketa hark malkoz bete zizkion begiak, eta ausartena masailetik irristatzera arriskatu zenean, esku zakar batek moztu zion bidea, bekatua balitz bezala azal zimurto hartan irristaketan ibiltzea.

Itxaropenaren esku zaharra. Aldatzeko aukera ematen zion bidea behin eta berriro itxaropenak

moztua. Azkenekoa izango zela zioten hitzak sinistu zituen, ez zela berriro gertatuko, milaka hitz samur eta inoiz sentitu gabeko laztanen artean. Baina hitz haiek ez zuten aldatzeko asmorik, tabako eta alkohol usainak betiko jarraituko baitzuen, garrasiak ez baitziren inoiz hitz atsegin bihurtuko, ez eta jipoiak fereka. Aspertua zegoen kalera irten orduko beleak ikusteaz, nekatua parke hura hain bakartia izateaz eta hormak marmarren doinuan begiradez betetzeaz. Nardatua ere barkamenari baiezkoa esan eta lehengoan jarraitzeaz, bere islari begiratu eta memoria haietaz oroitzeaz.

Kanpoan iluntzen hasia zen eta egun hartan ordua baino lehenago estali zituen gauak kale haiek. Sukaldean ere iluntasuna zen ageri, ageri zena gaua soilik bazen ere. Kanpoko kaleargi piztuek eroapen handiz eramaten zituzten ondoan aurkitzen ziren zuhaitzen hostoen jolas etengabeak, aldizkako izpiak igorritz. Tarteka sortzen ziren argi haiek itzal mugikorrez jantzi zuten gela, bukaezinak ziruditen urjauziak balira bezala. Irri alaien doinuan zebiltzan itzalek nekaezinak zitzuditen, alde batetik bestera gelditu gabe. Oroitzapenen kutxan “Ama, begira” oihartzunen soinu atsegina irribarre eta milaka jolasen artean. Egoera hari bukaera eman nahi ez zion itxaropena zoriontasunez beteriko itzal argitsuez elikatua, oroitzapenak indartzean esperantza sendotuz. Gauak kolorez jazten zituen algarak, zuhaitzak, txantxangorritz, urmael tristeak, lumaia zuridun ahatez eta etxe haietako hormak, doinu atseginen oihartzunez.

Argazkietan galdurik geratutako garai zoriontsuak, tratu txarrenak eramangarriak izatea ahalbidetzen zutenak, edozein irain eta jipoi onartzera bultzatzen zuten itzal alaiak.

Basamortu bakartiko oasiak ziren memoria geratutako algara haiek, zoriontasunaren egarriz oroitzapen urrun haiekin konformatzera ohitu zutenak. Iturri askoren aurrean izan arren, askako ur zikina edatera behartuta balego bezala. Inoiz berritzen ez den ura behin eta berriro edanaz. Presatutako ur hark ekartzen zizkion oroitzapenak galtzeko beldurrez, inoiz tanta freskoez birjarri ez zen putzu zikina.

Baina urmael zikin hartatik behar baino gehiago edana zen jada eta etxekotua zen putzu hartako sufrimendu eta algaren nahasketa gazi-gozora.

Zer egiten zuen pentsatu gabe, bere gelako armairu zaharraren aurrean aurkitu zen. Kaoba koloreko egurretik irristatu zituen eskuak eskutokia bilatu nahian. Kontu handiz heldu zion burdinazko euskarri hari eta metal hotz harekin talka egitean, bibrazio oneko hotzikarak kolpatu zion gorputz osoa. Sentipen arraroak igortzen zituen eskutoki hark, ezezagunerantz bidea irekitzeko giltza balitz bezala. Ate zahar haien atzean inoiz ezagutu gabeko itzalak zeuden gorderik, oroitzapenen kutxa astunean biziraun zutenen aldean oso ezberdinak, emozio berrien festarako sarrera ixten zuten atea irekitzeko urre koloreko giltzari bira erdia ematea bezain pauso erreza zelarik. Jarrera hartan geratu zen, ez atzera eta ez aurrera, eskui-

neko eskua giltzari bira emateko prest. Baina bazirudien bere barnean ura urjauzien moduan zetorkiola, bukaerarik ageri ez zuten sentimenduen urjauziak. Bere bihotzean aspaldidanik igarria zuen bi bandoen guda eta harrezkeroztik inork ez zion besteari aurrera egiteko aukerarik eman. Bat-batean, ordea, eskutokiari bira erdia eman zion, menditik zetorren ur garbiak bestea agortua zuela agerian utziz. Armairuaren ateak parez pare ireki ziren soinu kirriskatsu batekin, bere barneko iluntasuna agerian utziz. Urte askotan ireki gabeko armairu itxi bateko pisua zuen barnetik irteten zen aireak.

Arin-arin bildu zituen armairuko gehienak larruzko poltsa zaharrearantz eta minutu gutxi batzuen buruan sarrerako ate zaharraren aurrean aurkitu zen, maleta astuna eskuan zuela. Iluna zegoen pasiloa eta jada nahiko berandu izan behar zuen, kalean autoen burrunbarik ez baitzen entzuten. Auzategian ere ez zen ezer entzuten eta kanpoan, gorriz argituriko goizak auresan zuen moduan, euria ari zuen. Azken begirada bat bota zuen bere ingurunera eta euritako-ontzirantz so eginez, han aurkitzen zen aterkia hartu beharko zuela pentsatu zuen. Baina ez zen horrela izan, bere pausoak taupada batean gelditu baitziren.